

## Altza

Larraitz Garmendia - (943 39 12 67)

Auzoko Zurrunbilo komunikazio taldeak gazte topaketak antolatu ditu azaroaren 24 eta 26 bitartean. Topaketa hauetan etxebizitzaren arazoaz, informatikaz eta psikologiaz hitz egingo da, besteak beste.



Argazkian, Zurrunbilo Komunikazio taldeko kide-etako batzuk.

**a**zaroaren 24tik 26ra Zurrunbilo II. Gazte Topaketak antolatu ditu Zurrunbilo komunikazio taldeak, Altzako Auzo Etxean.

Egitaraua hilaren 24an hasiko da, arratsaldeko lehen orduan. Egun horretan etxebi-

zitzaren arazoa izango da aztergai. Ikuspegi orokorra eskaini ondoren, Audituz Akularri buruz hitz egingo dute Altza XXI Herri Ekimeneko partaideek. Etxebizitzaren arazoa gazteen artean bereziki larria denez, Okupazioa asan-

bladako eta gazte mugimenduko zenbait kidek ere iritzia emango dute.

Arratsean, berriz, azoka egingo da Auzo Etxean eta gauean bertso afaria egingo da, Agirre eta Osa bertsolariekin.

Larunbateko egitaraua eguerdian hasiko da. EHUko Informatika Fakultateko Pepe Rivadeneyra irakaslea etorriko zaigu, interneten espioitza egi-

teko "Enfopol" izeneko sistema aztertzeko. Arratsaldean "Kontrapsikologia eta errepresioa" titulupean, mahaingurua izango da. Bertan Bartzelonako Esquicie eta Malagako Versus taldeetako kideak ariko dira. Bestalde, Jousilouli eta 2-Kate taldeek kontzertua eskainiko dute 22.00etan.

Azkenik, igandean 17.00etan "Monos como Becky" filma ikusi ahal izango da. Film honetan lobotomia aztertzen da eta gaia hobeto ulertzeko, EHUko irakasleek azalpenak emango dituzte.

Zurrunbilo taldea 16 eta 25 urte bitarteko gazteek osatuta da eta bere helburua Altzako gazteen arteko komunikazioa eta harremanak indartzea da.

## Altza XXI Herri Ekimena

Altzako hainbat erakunde eta taldeetako ordezkariak Altza XXI Herri Ekimena aurkeztu dute. Ekimen hau sortzeko arrazoi nagusia Audituz Akularren egitekoa den hirigintza proiektua da. Jakina denez, inguru honetan 3.000tik gora etxebizitza egiteko asmoa du Udalak. Altza XXI Herri Ekimeneko kideek edozein proiektu egin baino lehen, auzoak dituen premiak sakon aztertzea eta altzatarren iritzia kontuan hartzea eskatu dute. Horrexegatik, eztabaida hau egin bitartean, Audituz Akularreko egitasmoa bertan behera uztea eskatu dute.

**Zurrunbilo taldeak  
Altzako gazteen  
arteko  
harremanak  
indartu nahi ditu**

## ARTAUNSORO ATERPEA

Ernio mendikatean kokaturiko aterpea.



- 35 lagunentzako logela.
- 4 lagunentzako beste logela.
- BATZAR, IKASTARO... gela.
- 1.000 pezeta lo egitea.
- 3.300 pezeta mantenu osoa.



Tel.: 943 58 10 55 • ERREZIL - GIPUZKOA